

Zaraten kontrola, gogaitzeak, sonometria probak.

Deskribapena: Establezimendu publiko eta industrialek etxebizitzetan eragindako gogaitzeengatik azterketak egin eta zaratak edota gogaitzeak salatzea. Udaltzainak zaratak aztertzeko eskatu duten lekura joango dira eta beharrezko diren neurketak egingo dituzte.

Izapideak egiteko unitatea: Zizur Nagusiko Udaltzaingoa.

Helbidea: Arridia kalea, 26

Telefonoa: 948 28 12 50 - 08:30etik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

- Faxe: 948 18 74 33

Telefonoa: 609 487 118, 24 orduz, urteko 365 egunetan.

Betebeharrak: Eskatzailearen datuk eta non dagoen adierazi behar da, zaratak nolakoak diren, zein ordutan gertatzen diren eta zaratak non sortzen diren (interesdunak uste duenaren arabera). Azterketaren eta neurketen akta egin ostean, ingurumen sailean egingo dituzte izapideak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Zerbitzua eskatu duenaren nortasun agiria edota pasaporteak.

Epea: Zaratak edota gogaitzeak sortzen direnetik, ahalik eta azkarren.

Lege oinarria: Zaratak eta dardarak sortzen dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen dituzten ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua.

Oharrak: Azterketa egiten duten agenteek txosten bat egingo dute eta egindako neurketaren akta egingo dute. Ondoren, neurketan jasotako emaitza 135/1989 Foru Dekretuak baimenduriko dezibel maila baino handiagoa bada, espediente bideratuko da hirigintza sailean. Era berean, hirigintza sailean zuzenean eskatu ahal izango da zaratak aztertu eta neurtzeko.